



Bezero erlazioa

Gure enpresaren helburu nagusia bezeroekin harreman ona izatea da. Horregatik, hainbat aplikazioen bidez eguneroko harremana mantentzen dugu. Gainera, hauek erabiltzea gure enpresa promozionatzeko eta bezeroei gure funtzionamendua ezagutzeko aukera bikaina da.

Instagram



Gure Instagram kontuan astean zehar egingo diren ekintzei buruzko informazioa igoko dugu, post edo bideoen bidez. Horrela, bezeroek gure jarduerak ikusi eta ulertu ahal izango dituzte. Gainera, gure enpresa promozionatzeko aukera izango dugu. Adibidez, diskofestako bideo batzuk partekatuko ditugu, diskofestak nolakoak diren eta zer nolako zerbitzua eskaintzen dugun erakusteko.

Email



Email bidez informazioa bidaliko diegu aurreko ekitaldietan sarrerak online erosi zituzten pertsonen. Mezu horretan, hurrengo ekintzaren data eta burutuko diren jarduerak zehaztuko ditugu. Gainera, deskontu bereziak eta argiztapenari buruzko bitxikeria interesgarriak nabarmenduko ditugu, jendearen arreta pizteko eta partaidetza sustatzeko helburuarekin.

Tik tok



TikTok plataforma erabiliko dugu gure ekintzen datak eta gure eskaintzak publikoari jakinarazteko. Gainera, gure diskoteka eta sagardotegiaren zerbitzuak modu originalean erakutsiko ditugu ekintza eta jokoen bidez. Esaterako, sagardotegian ikusleek parte har dezaketen jokoak antolatuko ditugu, hala nola janariak dastatu eta asmatzea edo sagardo mota desberdinak probatzea eta haien ezaugarriak aurkitzea. Horrela, gure jarduerak ikusleentzat dibertigarriagoak bihurtzeaz gain, esperientzia parte-hartzaileak eta erakargarriak eskainiko ditugu TikTok bidez.



WhatsApp



WhatsApp-en kanal bat sortuko dugu, eta horren bidez gure ekitaldien eta ekintzen berri emango diegu bezeroei. Gainera, kanal honek aukera emango die bezeroei gurekin harremanetan jartzeko eta beren zalantzak edo arazoak modu azkarrean konpontzeko. Horrela, bezeroek gure zerbitzuari buruzko informazio eguneratua jasoko dute, eta, aldi berean, gurekin zuzenean komunikatzeko modu eroso eta erraza izango dute.

Youtube



YouTube bidez bideo promozionalak sortuko ditugu, jendeak Lumina Biltokian zer egiten dugun ezagutu ahal izateko. Hala ere, edukia gehiegi ez dugu igoko, beste sare sozialak gehiago erabiliko ditugulako komunikaziorako. Batez ere, gure instalazioak eta ekintzak erakutsiko ditugu, ikusleak animatu eta gure zerbitzuez interesatzeko.